



## Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2024ko abenduaren 3a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

### Iñigo Astiz

(Iruñea, 1985)

Iñigo Astiz Martinez euskal idazle eta kazetaria da. 2019an Lauaxeta saria jaso zuen *Analfabetoa* poema bildumarekin. 2020an haur eta gazte literaturako saria jaso zuen Euskadi Literatura Sarietan *Joemak eta Polasak* liburuagatik. Berriako Kultura sailean dihardu lanean.

### Monogamoak



Opari osagabe baten oroitzapena, hildakoen ilarak eta hiltzaileenak, Lizasoko komuna eta haren itzalean hartutako bainua, biribilguneen utopikoak, gazte bat pintadak garbitzen, andre bat katu baten marruen eta amaren azken egunen artean, sasoiz kanpoko norbaiten itzulera, infinitura multiplikaturako tximinoak, balizko pailazo bat, txanpon-makinen zarata eta hondoko konplizitatea, une batez den-dena geratu uste izan zuen isiltasun bat.

Giroz, garaiz eta tonuz, eremu zabal bat bildu du Iñigo Astizek bere lehen narrazio bilduman. Aro bakoitzean jendeak elkarri eusteko botatzen dituen sokez ari da, komunikazioaz eta haren faltaz, eraikuntza historiko, politiko, kulturalen alde makurraz zein absurdoaz. Argitasunez eta ironiaz, soiltasunez eta saturazioz, bizidun ooren orekari urratsak datoz kontakizunotan.

### Iñigo Astizen argitalpenak (hautaketa)

Baita hondakinak ere (2012) **P AST**

Kixotenean (2016) **E AST**

Baita hondakinak ere (2019) **P AST**

Joemak eta polasak (2019)

Monogamoak (2024) **N AST**

## Kritikak esandakoak

“...16 istorio batzen ditu, non gaien eta erregistroen oparotasuna kausituko dugun istorio erakargarriak kontatzeko erakusten duen trebetasunagatik. Horrek zerikusia dauka ze narratzaile mota izatea aukeratu duen Astizek, testuen narraziozko izaera moldakorra aintzat hartuta, kontakizun bakoitzak forma zein tonu jakin bat eskatzen duelako ahotsak bideratzeko.

Horrekin batera, istorioek ez dute amaiera itxia. Hots, zenbakidun puntu asko agertzen diren denborapasa horietako baten antza dute, irakurleak puntu horiek lotzen saia daitezen esangura atzeman ahal izateko.

...

Astizek prosaren aukerak aldi batez landu nahi dituela begitantzen zait, literatur baliabideez jolasteko eta unibertso harrigarriak asmatzen jarraitzeko gogoz. Bidenabar, antzematen da idazleak gozatu egin duela kontakizunetan zedarritu dituen korapiloekin. Fikziozko narratiban probatu ondoren, istorio gehienetan arrakasta erdietsi egin duelakoan nago.”

Paloma Rodriguez-Miñambres / El Diario Vasco, 2024-07-27

“...Narratiban oro har, baina ipuingintzan bereziki, tonua hil ala biziko kontua da, giro sendo bat sortu behar denez orrialde gutxitan. Astizek txukun lortzen du hori, narrazioen hasi-hasieratik, gainera, in media res hasiera espero ezinekin.

Ipuinen erresonantzia kutxa gisa funtzionatzen dute idazleak utzitako hutsuneek, irakurleak bere kasa puzzlea osa ditzan lagatako arrastoak. Esan gabekoaren indar espresiboak esandakoaren oihartzun moduan jokutzen du. Astizek ondo darabil elipsia, Gizon on bat lehenengo ipuinean esaterako, non familia baten tragedia isila txirrindulariaren figura gaizki osatuaren bitartez irudikatzen den. Neskalguna izenekoan azaltzen da garbien, narratzaileak zatika baino ematen ez duen bi emakumeen arteko elkarrizketarekin.

...

Gehiegi asebate ez nauten ipuinak ere badira, ordea, dela aipatutako erresonantzia kutxa horren oihartzunik iritsi ez zaidalako, dela liburuan oro har eraginkorra suertatzen den tonuak huts egiten duelako. Diego Armando Maradona, Santua eta Itzultzea narrazioen kasua da. Kurioski, horiek dira eguneroko errealitatearen estrainamendua oinarri duen liburuko tonu nagusitik gehien aldentzen diren ipuinak, elementu fantastiko agerikoak sarraraziz.”

Asier Urkiza / Berria, 2024-06-02

## Elkarrizketa Berria egunkarian

Itziar Ugarte Irizar. Berria, 2024ko uztailaren 12a

“ ...

**Idazketa prozesuan zurekin izandako hiru euli askatu zenituen aurkezpenean: umorea irakurtzeko modua, errealitatearen eta artificioaren arteko tenka, eta literaturari buruzko aurreiritziak. Galdu dituzu bistatik?**

Ez, euli horiekin paseatzen naiz. Hurrengo idazten hasten naizenean, berriz etorriko dira, ez daukat besterik. Uste dut lotuta daudela oso nirea den zerbaiti, gauzei erreparatzeko modu bati, gauzei umorez begiratzeari... Ekitean bertan barruan doan zerbait da, gero testuan sartuta geratzen dena.

**Oso ipuin diferenteek osatzen dute liburua, baina azaleko irudiak eta izenburuak iradokitzen duten tentsio hauskorrek biltzen ditu. Ipuin bati eskatu beharreko gutxienekoa da tentsioa?**

Nire kasuan, ekiteak esplikatzeko didan gauza bat da, ez daukat aurretik pentsatuta. Baditut, noski, gustuko ditudan ipuinak eta gustuko ez ditudanak, eta gustuko ditudanetan errepikatuko da zerbait, baina ez daukat intelektualizatuta. Saiatzen naiz jarduna izan dadila benetan gida. Aurrez pentsatzen badut, akabo. Liburu honetan bertan gertatu zitzaidan, gainera.

### Gertatu zer?

Ipuin liburu bat egitearena imajinatzen nuenean, Hassan Blasim idazlearen *Kristo irakiarra* liburuarekin gogoratzen nintzen. Pasada bat da: bortizkeria belarrietaraino, baina oso normal kontatua. «Etorri behar nuen, baina atentatu bat egon da kale horretan, eta beste kale bat hartu behar izan dut...». Noski, hori Bagdaden, sasoi luzez, oso gauza naturala izan da. Horrorea eta egunerokotasuna elkartuta. Hark bortizkeria hori guztia hartzen du, eta subkontziente kolektiboan utzi duen eragina-edo landu. Asko dira amets giroko ipuinak, fantasia hutsak... baina errealitate oso bortitz bati buruz ari direnak. Liburu horrek klik eginarazi zidan, eta horrelako zer edo zer idatzi nahi nuen: gure errealitate arraro hau, baina hark subkontzientean utzi digun lorratzaren bitartez. Hori zen ideia. Baina, bide erdian, aspertu egin nintzen.

...

**Esan izan duzu poemak idazteko gakoetako bat zera dela, horien ideia pizgarria agertzen uztea. Nola izan da ipuinen kasuan?**

Antzera, ez pentsa. Batzuetan formak ekarri du istorioa, eta beste batzuetan istorioa egon da forma agertu zain. 36ko gerran Francoren erretratu bati ardo kopa bota zion pertsona bat, gero, esaten denez, Frantziako zirku batean pailazo amaitu zuena. Nik istorio hori 14 urte nituenetik dakit, eta beti kontatu nahi izan dut. Baina hasten nintzen, eta erortzen zitzaidan melodramara, telenobelara... eta, niretzat, istorio on bat galtzea zen hori. Azkenean erdi saiakera bihurtu da, kontagarri denari buruzkoa [Ikono klasia kasu bat ipuina], baina kontatzeko modu hori topatu izan ez banu, izango zen ipuin konbentzional bat, akaso, ipuin on bat, auskalo. Saiatu naiz kontatzeko zerbait nuenean ere itxaroten istorio hori kontatzeko moduak bere burua agertu arte. Nire metodoa itxarotea da: itxarotea eta ez jakitea zertan ari zaren [barre ozena].

### Hori da titulua?

Izan daiteke. Azaltzeko nahiko prentsa txarra duen metodoa da, baina hori da nirea. Neskalguna-ren kasuan ere, adibidez. Bi emakume daude hizketan, baten umeak elbarritasun bat dauka, eta haren bizitza sexualari buruzko kezka azaltzen dizkio lagunari. Nik hori ezin nuen kontatu pertsonaien ahotik, iruditzen zitzaidan inpostatzen ari nintzela. Batzuetan trama jartzen dugu erdigunean, eta ni saiatu naiz ardatz hori pixka bat mugitzen. Uste dut poesiaren tresneriak balio didala literatura horrela pentsatzeko.

...

**Pertsonaia batzuk «oso guapo» eta «a sako» esaten jarri dituzu. Faltan hartzen duzu literaturan euskara gehiago zikintzea?**

Laugarren eulia da hori... idatziaren eta ahozkoaren korapiloa. Zenbat entrebista egiten ditugu eta dira, eskuzabal esanda, euskañolez? Errealitatea hori da, errealitatea oso zikina da. Ez nuke nahi horrelakoa izatea, baina horrelakoa denez, bere fenomenologian gustatzen zait, dibertitzen naute gauza batzuek. Gero, hori liburuetara eramaten denean, niri ere kontraesanak sortzen dizkit. Ez da lehen kolpean onartzen dudana gauza bat. Uste dut hemen erdibideko zerbait egin dudala: euskara dakidan eta txukunen erabili, baina zikintasun horren espresibidadeari uko egin gabe.

Uste dut kontua ez dela zer, baizik eta nola. Koldo Almandozek eta Aritz Truebak Natasha-n zoragarri erabiltzen dute euskañola. Pertsonaia eraikitzeke ongi pentsatutako tresna bat da. Ez da ezinetik egindako hautu bat, ahaletik baizik. Ni molestutzen nauena zera da, batzuetan erabaki politiko baten ondorio bezala aurkezten dela ezinetik sortzen den estetika bat, eta ez da egia.

**Tonu «saturatua» erabili duzu zenbait ipuinetan; euskal gatazkaz eta indarkeria matxistaz aritzeko, esaterako. Ez dakit ondo zein den galdera, baina liburuaren ezaugarri deigarri bat da. Erosoa egin ote zaidan?**

### Adibidez.

Erantzuna da ezetz. Diego Armando Maradona ipuina hilabeteak egon zen zaborrontzian. Ze hor kontatzen dena egiazkoa da. 1981ean, Polizia Bilboko Alde Zaharrera sartu zen ETako kide batzuen bila; tiroketa bat egon zela kontatzen du bertsio ofizialak, eta Ovidio Ferreira hil zuten, 29 urterekin. Coviteren biktimen zerrendan dago, baina ez du sekula omenaldirik jaso. Bere lagunek esaten dute ez zela ETA izan, tiroak Poliziak bakarrik egin zituela. Gristasun batean geratu den pertsona bat da. Duela urte gutxi manifestazio bat egin zuten aldarrikatzeko jakin zedila egia guztia, eta parte hartzen ari zirenen kontra kolpeka bukatu zuen Poliziak. Noski, nik istorio hori kontatu nahi nuen, baina ezin nuen kontatu. Hasten nintzen esaten pertsonaia arraro esnatu zela goiz hartan, eta, berdin, dena oso inpostatua egiten zitzaidan. Orduan, kontraera bera bihurtu nuen protagonista. Kontatu behar dudana zer da, linbo politiko-historikoan geratu den gertakari bat, ez? Ba linboan kontatuko dut.

Mari Puri Herreroen koadro bat neukan buruan, idazten hasi nintzen, eta barruan neukan kaka hau guztia hasi zen ateratzen. Ez nuen nik bilatu, atera egin zen. Eta atera zen oso testu —aurreikusi ezin nuen moduan— dibertigarria. Baina, gero, irakurri, eta gaizki sentitu nintzen. Oso era sarkastikoan ari nintzen gertakari oso latz bati buruz. Zakarretan nuen, baina egun batean begiratu nuen berriz, eta berriz grazia egiten zidan eta, era berean, gaizki sentiarazi. Pentsatu nuen igual nik neuk besteen lanetan bilatzen dudana hori izaten dela, sentiarazi nazala ezeroso neure buruarekin. Umorea zeukalako ari nintzen atzera botatzen. Eta zergatik ez du balio umoreak hori kontatzeko? Umoreak ipuin horretan ez du ezer soluzionatzen. Ez du askapen bat proposatzen: katarsi moduko bat proposatzen du; barre egin dezakezu, baina ez zaitu lasaiago uzten; are gehiago, gaizki sentitzen zara barre egiteagatik.

...”

## Erabilitako iturriak

Wikipedia

[https://eu.wikipedia.org/wiki/I%C3%B1igo\\_Astiz](https://eu.wikipedia.org/wiki/I%C3%B1igo_Astiz)

Kritiken hemeroteca

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8999>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=8975>

Berria

[https://www.berria.eus/kultura/nire-metodoa-da-itxarotea-itxarotea-eta-ez-jakitea-zertan-ari-zaren\\_2127300\\_102.html](https://www.berria.eus/kultura/nire-metodoa-da-itxarotea-itxarotea-eta-ez-jakitea-zertan-ari-zaren_2127300_102.html)